

# ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ) ORDAINTEKO DIRULAGUNTZA

Exdt UHDL

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Ondasun higiezin gaineko zerga ordaintzeko Hernaniko udalak ematen duen dirulaguntza eskatzeko tramitea

## NORK ESKA DEZAKE?

Interesdun den edozein pertsonak edo haren ordezkariak dagokion baimenarekin

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

[-ondasun higiezin gaineko zerga tasak ordaintzeko dirulaguntza Inprimakia](#)

Hernaniko Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuaren bidez, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- Eusko Jaurlaritzari: diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko kontsulta; Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta Eskuragarri
- Foru-ogasunari: errenta-mailari buruzko datuak (PFEZ); Kontu mailari buruzko kontsulta, Ondare mailari buruzko kontsulta; Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- GSINri: gizarte-prestazio publikoen kontsulta
- SEPERi: langabezia-prestazioen kontsulta.
- Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuen kontsulta
- Katastroaren Zuzendaritza Nagusia: Katastro datuen kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Lan ibilbidearen kontsulta; Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

## Nola eskatzen da?

**Aurrez aurre:** hhz-Herriararren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuaren astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

**Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orka etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

**Internet:** [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriaren bidez eskaera-orka bete, dokumentazio guztiarekin , TRAMITE ON LINE hasi eta Udaletxean aurkez dezakezu.

**Posta arrunta:** Posta-bulegoetan, administrazio-posta baten bidez (gutun-azal irekia)

## PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako	epea:	2	hilabete
Ohiko prozedura.	Legezko epea:	6	hilabete.

Administrazio-isiltasunaren izaera: negatiboa

## ARAUDI APLIKAGARRIA:

Ondasun Higiezin gaineko Zerga ordaintzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak

## ESKAERA EGIN ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:

Errenta Departamentuko dokumentazioaren azterketa  
Proposamen teknikoak  
Alkatetzak onartzea  
Interesdunari jakinaraztea

## IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN UDAL-SAILA

Errenta-Ogasuna

## NORK ONARTZEN DU?

Alkate edo zinegotzi delegatua

## OHARRAK

-Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan interesdunak borondatez ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa (errekarguei, kostuei edo interesei dagozkien zenbatekoak ez dira diruz lagunduko).



- Eman daitekeen diru-laguntza urtebeterako baino ez da ulertuko.
- Diru-laguntza eskabidean emandako kontu korrontean sartuta ordainduko da

### **DATU PERTSONALEN BABESA**

Datuen tratamenduaren arduraduna: Hernaniko Udala

**Datuak babesteko ordezkari (DPD):** [dbd@hernani.eus](mailto:dbd@hernani.eus)

Helburu orokorra: Hernaniko Udalak kudeatzen dituen prozedurak eta espedienteak izapidetzea.

Helburu espezifikoak, legitimazioak, hartzaileak: zergak, tasak eta prezio publikoak kudeatzea eta biltzea.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak: eskubide horiek Hernaniko Udalaren aurrean baliatu ahal izango dira. Helbidea: gudarien Plaza 1, 20120 Hernani (Gipuzkoa). Edo [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) egoitza elektronikoa. Gai honako hau adierazi beharko da: Erref. Datuen babesa Erreklamazio bat ere aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan: [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus).

**HERNANIKO UDALA, hhz-Herriarren Harrera Zerbitzua**

Gudarien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696

e-posta: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus) | [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)



Hernaniko  
Udala

